

Sagardo Berriaren Egunaren ospakizuna bertan behera gelditu da, pandemiaren egoera dela eta

Kronika - Erredakzioa 2021-01-28 00:00



Pasa den urtean Sagardo Berriaren eguna Alorrenea sagrdotegian izan zen.

Otsailaren 3an zen ospatzekoa 2021eko sagardo denboraldiaren irekiera iragartzeko 'XXVIII. Sagardo Berriaren Eguna', baina aurten ez egiteko erabakia hartu da.

COVID-19ak eragindako egoera dela eta, 2021eko sagardo denboraldiaren hasiera atzeratu eta otsailaren 5ean sagardotegiek beren ateak irekitzeko erabakia hartu zuten. Izan ere, arduraz jokatu eta Eusko Jaurlaritzak ostalaritzarako indarrean jarritako neurrien arabeko protokolo berezia jarraitu behar izan zuten.

Dena den, azaldu dutenez, pandemiaren egoerak «okerrera» egin duela ikusita eta une honetan indarrean dauden mugikortasun neurriak aintzakotzat hartuta, sagardotegi batzuk beren ateak beranduago irekitzeko erabakia hartu dute.

Gauzak horrela, otsailaren 3an ospatzekoa zen sagardotegi denboraldi berriaren hasiera iragartzeko *XXVIII. Sagardo Berriaren Eguna* bertan behera uzteko erabakia hartu da.

Hala ere, herritarrei gogorarazi diete sagardotegi batzuk irekita daudela eta, beraz, aukera dagoela sagardo berria dastatzeko eta sagardotegiko otorduaz gozatzeko.

Eta, horrez gain, adierazi dute sagardotegi guztiak irekita daudela botilako sagardoaren salmentarako.

[Ekonomia](#)


Erantzun ▼



dituzte gaurko egunerako



Hernani eta Astigarraga lotari federatuak hasi dira jokatzeko hiru hilabete geldirik egon eta gero



Ikusienak



[Txakurra ateratzea, kirola, hiletak... Zer egin dezaket neurri berriekin?](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 27, 00:00 [Hernani](#)

[Tokiko Gobernuak batzarra gaur, bi gai nagusirekin](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 28, 00:00 [Hernani](#)

[Arratsaldean lortu zuten, kamioia bidetik ateratzea](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 27, 00:00 [Hernani](#)

[Larrialdi ekologikoarekin kezkatuta, elkarretaratzea](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 28, 00:00 [Hernani](#)

[Betizuak herrigunetik kentzeko eskatu du Goizuetako Udalak](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 27, 00:00 [Goizueta](#)

[Sagardo Berriaren Egunaren ospakizuna bertan behera gelditu da, pandemiaren egoera dela eta](#)

Kronika - Erredakzioa
urt 28, 00:00 [Urumea](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkartea](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika@ABILDUA.kronika.eus



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARRERMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[ANBOTO](#)

[ATARIA](#)

[BALEIKE](#)

[AIURRI](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GOIENA](#)

[GUAIXE](#)

[HIRUKA](#)

[KARKARA](#)

[MAXIXATZEN](#)

[PLAENTXIA](#)

[ALEA](#)

[28 KANALA](#)

[ANTXETA](#)

[BARREN](#)

[ERLO TELEBISTA](#)

[GEURIA](#)

[GOIERRI TELEBISTA](#)

[KRONIKA](#)

[MAILOPE](#)

[NOAUA](#)

[DEUSTUALDEA PREST](#)

[TXINTXARRI](#)

[URIOLA](#)

[UZZTARRIA](#)

[AMEZTI](#)

[OIZMENDI TELEBISTA](#)

[Gurean](#)

[Plazanbazan](#)

[Itap](#)

[Tokikom publizitatea](#)